

Jarraian, eraztunle orok ezagutu beharreko gaien eta izan behar dituen gaitasunen Aranzadi Zientzia Elkarteko Eratzunketa Bulegoko (EB) egiaztapen-zerrenda zehazten da. Zerrenda honek, formakuntzan dauden pertsonen eratzunketaren alderdi praktikoari dagokiola lortu behar duten maila zein den jakin dezaten balio du, era berean, abalatzten dituen eraztunleak, eraztunle aditu azterketara aurkeztu aurretik bere formakuntza ebaluatu eta prest dagoen jakin dezan balio du.

BIBLIOGRAFIA:

- Espezieak identifikatzeko eta adina zein sexua zehazteko gidaliburuak ezagutzea eta irakurrita izatea.
- EBko Araudia eta protokoloak ezagutzea eta irakurrita izatea.
- Eratzunketa-baimenak eskatzeko prozedura ezagutzea.
- Eratzunketarako oinarriko tresneria ezagutzea.
- Eratzunketak duen aplikazio zientifikoa ezagutzea.

TRAMPAK:

- Orokorrean, harrapaketa-metodoak eta itu-espezieak ongi ezagutu eta maneiatzea.
- Sareak. (1) jartzeko lekua aukeratzen jakitea, (2) ongi zabaltzen, jartzen, jasotzen eta gordetzen jakitea, (3) kontrola galdu gabe zenbat jarri behar diren jakitea(4) edozein espezie azkar ateratzen jakitea, (5) egoera konplikatu bat kudeatzen jakitea (euria hasten bada, haize gogorra, bero-kolpea, harrapaketa kopuru handia), (6) bere erabilera galarazten duten baldintzak ebaluatzen jakitea.

HEGAZTIA GARRAIATZEA:

- Kalterik sortu gabe hegaztiak poltsan sartzea eta sartzean eta ateratzean zuzen maneiatzea.
- Poltsa bat noiz garbitu behar den jakitea.
- Eratzunketarako poltsa baten ezaugarriak zeintzuk izan behar diren ezagutzea.

HEGAZTIAREN MANEIOA:

- Mendebaldeko Paleartikoko espeziek identifikatzen jakitea eta espeziea identifikatzen ez bada, alea askatzea.
- Hegaztia estres kritikoa, zauriak edo lesiorik sortu Gabe maneiatzea: saretik edo erabiltzen ari garen tranpatik ateratzean; esku batetik bestera pasatzerakoan; eraztuntzen den bitartean; neurriak hartzean; hegoa zabaltzean; mokoa irekitzean.
- Hegazti habihagileekin hartu beharreko neurri berreziak ezagutzea.
- Maneiatzen zailagoak diren espezieak zuzen maneiatzea.
- Hegaztiak behar baino denbora luzeagoz ez gordetzea.
- Leku itxi batetan ihes egin duten aleekin zer egin behar den jakitea.

ERAZTUNKETA:

- Eratzun modelo zuzena jartzea; honek, eratzun modelo desberdinak ezagutzea eta gomendatutako eratzun-modeloa ale zehatz bakoitzari ongi doakion ebaluatzen jakitea barneratzen du.
- Eratzuna zuzen irakurtzea.
- Eratzuna zuzen jartzea.
- Eratzun bat gaizki jarrita dagoela igartzea eta nola eta noiz kendu behar den jakitea.

ADINA ETA SEXUA:

- EURING adin-kodea zuzen erabiltzea.

- Espezie desberdinen adina eta sexua zehazteko erabili behar diren ezaugarriak zeintzuk diren ezagutzea.
- Adina zehazteko burezuraren osifikazio-kodea ezagutzea.
- Sexua zehazteko inkubazio-plakaren eta kloaka protuberantziaren garapena ezagutzea.

NEURRIAK HARTZEA:

- Landa-fitxa zuzen erabiltzea.
- Bitxitasunei edo kasu 'arraroei' argazkiak nola hartu edota neurriak hartzen jakitea.
- Neurriak hartzeko tresnak zuzen erabiltzea: erregelak, balantzak, kalibreak.
- Muskulu- eta gantza-kodeak zuzen aplikatzea.
- Muda-fitxak betetzea.

TXITAK:

- Eragozpenak eta harrapaketa potentziala gutxitea.
- Ze adinetatik Aurrera eraztundu daitezkeen ezagutzea.

SEGURTASUNA:

- Maneiuaren ondoriozko hegaztiarentzako eta gizakiarentzako lesioak aurreikusten jakitea.
- Eratzuntzen ari den pertsonarentzako arriskua eta arrisku fisikoa ekiditen jakitea.
- Estres kritikoaaren sintomak ezagutzea eta horrelakotan zer egin behar den jakitea.
- Gaixotasun arruntak eta hegaztien arteko zein hegazti eta gizakiaren arteko kutsadura ekiditeko neurriak ezagutzea. Biosegurtasun neurriak ezagutzea.
- Lesio eta heriotza zehaztasunak nola jaso behar diren jakitea.

DATUAK:

- EBko protokoloaren arabera landa-lanean datuak hartzen jakitea eta eratzunketa-orria (Excel-normalizatua) betetzen jakitea.
- Eratzunketa-orria, berreskurapenak eta gordetako-materiala (eratzun *stock-a*) nola eta noiz bidali behar diren jakitea.
- Eratzunketa-baimenak noiz eta nola bideratu behar diren jakitea.
- Marka bereziak noiz erabili behar diren eta eskaria nola egin behar den ezagutzea.

HARREMAN PUBLIKOAK:

- Eratzunketa zergatik eta zertarako erabiltzen den modu egokian azaltzen jakitea.
- Hitz itsusiak erabili gabe eta sexista ez den hizkera inklusiboaz, hitz egiteko modu egokia, didaktikoa eta hurbila erabilia publikoan hitz egiten jakitea.
- Publikoaren bisita eta hegaztien maneioa zuzen kudeatzen jakitea.
- Banakoaren itsura, garbitasuna (eskuak, azazkalak eta ilea) eta janzkera zaindu.
- Eratzunketa-saioak dirauen artean ez jan eta ez erre.
- Ordena eta garbitasuna mantendu (materiala, kolektoreak,...).